

Biopsien zirkuitua eta Erabiltzailearen Eskuliburua

**Anatomia Patologikoko Zerbitzua
Donostia Ospitalea**

2004

AURKIBIDEA

Sarrera	5
Biopsien zirkuitua	7
Patologia zerbitzuaren kokapena eta harremanetarako ohiko bideak	8
Zerbitzuen zorroa	10
Azterketa morfologikoaren beharrik ez duten espezi-menak	12
1. Biopsia-laginak bildu eta bidaltzea	12
1.1. Laginak identifikatzea	14
1.2. Arrisku biologikoa duten laginak	14
1.3. Hoztea	16
2. Ontziak, azterketa morfologikoa eskatzea, garraioa eta ordutegiak	17
2.1. Ontziak	17
2.2. Azterketa morfologikoa eskatzea	18
Bidalitako laginen laburpen-orria	12
2.3. Garraioa	119
2.4. Ordutegiak eta harrera Anatomia Patologikoan	20
3. Ebakuntza-barneko biopsiak	21
4. Finkagailuak	22
5. Ebakuntza-gelako parteak. Ehunen Batzordea .	24
6. Biopsien kontrol eta erregistrorako orriak . .	24
7. Azken txostena banatzea eta harrera-kontrola	25
8. Laginak suntsitzea	26
Eranskinak	27
I- Errefusatutako espezimenen egunerokoa . . .	29
II- Biopsia-azterketa eskatzeko orria	30

Tradizioz, plazaz jabetu aurretik zeuden profesionalek ahoz jakinarazte hutsaren bidez ikasi izan da Anatomia Patologikoaren zerbitzuetara biopsiak nola bidali behar diren. Noizean behin, lagin jakinen bat bidaltzeko moduari buruz zalantzaren bat sortu izan da, berezia bazen edo ohiko ordutegietatik kanpora jaso bazen, eta ondorioz, Patologia zerbitzura deitu behar izan da.

Eskuliburu honen helburua laginak ahalik eta ongien aztertzeko aukera emango duten jarraibide arautu batzuk eskaintzea da, teknika berriak eta Patologiaren etorkizun hurbilean igartzen direnak kontuan izanik. Bere helburua ez da, beraz, arau-multzo bat izatea, baizik eta fakultatiboek eta EUDek beren buruari egiten dizkieten galdera ohikoenei erantzun ematea.

Biopsiak erabili eta bidaltzeko moduari dagokionez, halabeharraren menpe ahalik eta gertaera gutxienak uzteko xedez, lan-talde bat sortu zen, itxaropenez eta eraginkor izateko gogoz betea. Dagokion Medikuntzako Azpizuzendaritzaren, hots, Sinesia Caballero Medikuaren bermea du talde horrek. Lan-talde hori honakoek osatu dute:

Manuel Vaquero Med. (Patologia Zerbitzuko Burua)

M^a José Bueno (EUD. Larrialdiak)

Arantxa Etxeberria (EUD. Gipuzkoa Eraik.)


Mabel Gracia (EUD. Arantzazu Eraik.)

Koro Berasarte (APTE Patologiako koordinatzailea)

Marian Emazabel (APTE)

Esperantza dugu, premiaren eta talde-lanaren fruitu den eskuliburu hau berehala hasiko dela bere lehen fruituak ematen, eta denon laguntzarekin, pixkanaka-pixkanaka hobetzen joango garela.

Biopsien zirkuitua



Patologia zerbitzuaren kokapena eta harremanetarako ohiko bideak

Donostia Ospitaleko Anatomia Patologikoaren zerbitzua ama-haurren eraikineko ken bat solairuan aurkitzen da.

Zerbitzuko idazkaritzaren telefonoak honako hauek dira ("83" aurrizkia erabiliz Arantzazu/Ama-haurren eraikinetik kanpo deituz gero):


- 6003
- 6008
- 7002
- Ebakuntza-barnekoak: 6005
- Kanpo-linea: 943 007 002
- Faxe: 943 007 151

Idazkaritzako posta elektronikoa:
aapatolo@chdo.osakidetza.net

Badago **Iradokizunen Postontzi** bat zerbitzuaren sarreran (autopsiak eskatzekoaren aldamenean).

Erne!

Ez erabili hodi pneumatikoa biopsien laginak Anatomia Patologikora bidaltzeko.



Patologia Zerbitzuko Zerbitzu Multzoa

1. Autopsia kliniko fetalak, perinatalak, haurrenak edo helduenak egitea (hepatitis eta tuberkulosi birusek kutsatzeko arriskua dutenak ere barne)
2. GIB gaixoen autopsiak egitea ziztada-aspirazioaren bidez (prioien bidezko gaixotasunaren susmoa hartzen zaien pazienteen artean ez da autopsia totalik edo partzialik egiten).
3. Biopsia-laginen ebakuntza-barneko diagnostikoa, teknika hori normalean erabiltzeko aukera ematen dutenetan (ehun gogorak edo izoztu ezin daitezkeenak kanpoan uzten dira).
4. Mikroskopia optiko konbentzionaleko tekniken bidez diagnostikoa egitea, autopsia, biopsia eta zitologiako edozein motatako espezimenei aplikatuak (azterketa morfologikoaren "beharrik ez omen dutenak" salbuetsiz).
5. Mikroskopia optiko konbentzionaleko tekniken bidez diagnostikoa egitea, orratz fin batekin egingako ziztada-aspirazio bidez lortutako laginetan (OFZA).
6. Diagnostikoa egitea histokimika-tekniken bidez (Hirschprung gaixotasuna ere barne), immunofluoreszentzia bidez (gaixotasun baba-eragileak eta giltzurrunetakoak) edo immunohistokimika bidez (tumore-patologian), autopsia, biopsia eta zitologiako espezimenen gainean aplikatuak.

Beste zerbitzu edo erreferentziazko ospitaleetara bidaltzea hitzartu daitekeen arren, egun ez dago, Patologia zerbitzuan, honelako prozedurarik:

1. Eskeleto-muskuluaren azterketa histokimikoa.
2. Inmunohistokimika mikroorganismoentzat.
3. Mikroskopia elektronikoa
4. Patologia Molekularraren teknikak (FISH, PCR, ...) edo Zitogenetika.
5. Patologia kuantitatiboaren teknikak (Morfometria, Irudiaren Analisia)
6. Fluxuaren zitometria.
7. Ehunen hazkuntza

Patologia zerbitzura bidali behar diren Espezimen Kirurgikoak

Donostia ospitalean Ehunen Batzorde bat ez dagoe-nez, sail honen edukiaren barruan Amerikar Patologoak Kolegioak eskainitako datuak biltzen dira. Erakunde honek arau batzuk ezarrita ditu, gidaliburu gisa, Patologia zerbitzura bidali beharrekoak diren laginei buruzkoak, nahiz ospitale bakoitzak zehaztu ahal izango duen, alde zuzeneko akordio baten bidez, zein diren aztertu beharreko laginak. Hasiera batean, lagin kirurgiko guztiak bidali behar dira, jarraian aipatzen direnak izan ezik:

1. Hezur-bankuarentzat emandako hezurra
2. Zuzentzeko edo berregiteko ortopedia-prozeduren zati gisa mugitutako hezur-zatiak.
3. Beheko gorputz-adarren ohiko anputazioak
4. Begi-lausoak
5. Ehun bigun atxikirik ez duten hortzak
6. Liposukzio-materiala
7. Medikuntza eta lege arloko egoeretan ebidentziak izan daitezkeen gorputz arrotzak
8. Zirkunzisioetako azala
9. Ehun bigun atxikirik ez duen UBG
10. Medikuntzako materialak: kateterrak, stent, suturak,... pazientearengan iatrogeniarik eragin ez dutenean.

11. Erdiko belarriko osikuluak
12. Ortopedia-protesiak
13. Zehaztutako irizpideetara egokitzen ez diren
karenak (obstetraren iritziz)
14. Bazterreko zatiak edo ebakuntza egin ahal izateko
bakarrik erazitako beste ehun batzuk, kaltegarritasun-historiarik gabeko gaixoen artean.
15. Safena benaren zatiak, by-pass koronarioetan erabiliak.
16. Jarduera kosmetikoetan edo berregitekoetan
erauzitako azala edo beste ehun arrunt batzuk
(adib.: sindaktilia)
17. Halabeharrez mugiarazitako azazkal arruntak
18. Iturri erradioaktibo terapeutikoak

Honako espezimen hauek bidali egin daitezke, nahiz
azterketa makroskopikoa bakarrik behar izaten
duten:

1. Hatz akzesorioak.
2. Juanikoteak, mailu-gisako behatzak.
3. Gihar estraokularrak kirurgia zuzentzaile bidez.
4. Helduaren izterrondoko hernia-zakuak.
5. Sudur-hezurra eta errinoplastia edo septoplastia-
ko kartilagoa.
6. Ugatz-protesiak.
7. Ehun atxikirik ez duten balbula-protesiak.
8. Haurren tonsilak eta adenoideak.
9. Meniskoak.
10. Zilborreko hernia-zakuak haurretan.
11. Barizedun benak.

1. Biopsia-laginak hartu eta bidaltzea

Erne!

Ez erabili sekula hodi pneumatikoa biopsien laginak Anatomia Patologikora bidaltzeko.

1.1. Laginak identifikatzea

Lagin bat identifikatu gabe egotea nahikoa arrazoi izango da Anatomia Patologikoaren zerbitzuan onartua ez izateko.

Lehentasun handikoa da ontziak identifikatzea, eta hori, jada prestatuta eta historia klinikoan eskuragai dauden etiketen bidez egin beharko da. Tapa inoiz ez da identifikazio-toki bezala erabili behar

Salbuespenezko kasuetan, tinta ezabaezinezko errotulagailuz eta letra larriz idatzita identifikatu ahal izango da ontzia. Nolanahi ere, gutxienez honakoa agertuko da:

- ✓ Pazientearen filiazio osoa (izena eta/edo abizenak euskaraz agertu eta gaztelaniaz beste grafia bat dutenean- Adib.: "tx"-en kasuan, pazienteak eskuarki erabili ohi duena idatzi beharko da)
- ✓ Historia klinikoaren zk.
- ✓ Paziente beraren ontzi bat baino gehiago bidaltzen direnean, barruan dagoen organo edo lagin-mota adieraziko da, ontzi bakoitzaren saihets batean.

Lagina duen ontzi horren barruan formola baldin badago, komeni da adieraztea, ontzi horretan eta/edo eskaera-orrian, lagin hori finkagailuan zein ordutan sartu zen (inmunohistokimika-teknikak hobeto erabiltzeko eta baloratzeko beharrezkoa.)

Ospitale-eremuan, bidalitako materialaren identifikazioa eta azterketa morfologikoaren eskaera-orria helburu horretarako erabilgarri dauden etiketa eransgarrien bidez egingo da.

Lagin horiek, aipatutako etiketak ez dituzten lehen arretako **anbulatorioetako kontsultetatik** edo beste ospitale batzuetatik baldin badatoz (bigarren kontsulta edo berrikuspenetako pazienteak), eskaera-orriko eta ontziko identifikazio hori letra larriz egingo da, irakurtzeko moduan eta laburdurarik gabe (ikus atal hau: gutxieneko filiazio-datuak eta klinikoak). Beste ospitale batzuetako **laminak berrikusi eta/edo parafina-blokeak bidaliz gero**, sorburuan egindako patologia-txosten bat edo, horrelakorik ez badago, pazientearen eta bidalitako materialaren identifikazioa egitea ahalbidetzen duten datuak argi eta garbi jasotzen dituen gutun bat joango da horiekin batera.

Lagin bat baino gehiago egonez gero, ontzian bertan itsatsitako etiketa bat eduki behar du ontzi bakoitzak (ez tapan) eta, horren ondoan eta errotilagailu ezabaezin batez, lagin bakoitza zein organo edo ehuni dagokion adierazi beharko du.

Laginean adierazitako sorburua ez baldin badator bat eskaera-orrian adierazitakoarekin, Anatomia Patologikoaren zerbitzuak ez du bidalketa hori onartuko.

Ontziaren identifikazioan akatsik ez gertatzeko datu baliagarriak:

a.- Lagin hori finkagailuaz bidaliz gero, etiketa ontzian aplikatuko da -instrumentistaren laguntzaileak, ebakuntza izanez gero-, formolaz bete ondoren eta lagina horren barruan sartu aurretik.

b.- Ontzietan edo eskaera-orrietan ez da etiketarik jarriko, aurreko pazienteari zegozkionak kentzen ez diren bitartean.

1.2. Arrisku biologikoa duten laginak:

Lagin batek Arrisku Biologikoa (AB) eragin baldin badezake, nahitaezkoa izango da bidaltzen diren laginen laburpen-orrian beti hori adieraztea (I. eranskina). Pazientearen konfidentzialtasuna mantentzeko, EZ da inolako seinale bereizgarriarik jarriko ez eskaera-orrian eta ez ontzian ere.

1.3. Hoztea:

¡Ernel!: Pieza handien finkagailuan formola erabiltzeak ez du bermatzen horiek egoki kontserbatuko direnik. Patologoak, lagin handienak erauzi direnetik ahalik eta denbora-tarterik laburrenean prestatu behar ditu, finkapena egokia izan dadin.

Horren arrazoa hauxe da: formola zentimetro erdia bakarrik barneratzen da eta horretarako ia ordubete behar du. Beraz, parterik sakonenak eta hainbat ehunek estalitako azalekoenak ere, hala nola mesotelioa, kapsulak (gongoila, gibela, barea), azala, ... berdindu eta azterketa anatomopatologikorako baliogabetuta geratzen dira.

Pieza handienak hondatu daitezela eragozteko, beraz, ezinbestekoa da ekintza hautakoren bat egi-tea:

- ✓ Anatomia Patologikora ordu erdi baino lehen finkatu gabe bidaltzea.
- ✓ Ordu erdiko epe horren barruan bidaltzerik ez

badago, baina bai ordubeteko edo bi orduko epean: finkatu gabe mantenduko da, suero gazi fisiologikoz bustitako gasa batean bildua, hozkailuaren barruan 4-6°C-tan (inoiz ez izozkailuan, ehunen urarekin kristalak osatzen direlako).

- ✓ 4 ordu baino epe luzeagoa aurreikusten bada bidaltzeko: formol ugaritan sartu, pieza guztia estaltzen duela, eta ontzia hozkailuaren barruan sartu, 4-6° C-tan, Anatomia Patologikora bidali arte.

2. Ontziak, azterketa morfologikoa eskatzea, garraioa eta ordutegiak

2.1. Ontziak:

Donostia ospitalean zazpi ontzi-mota daude biopsien laginetarako:

- ▶ Segurtasun-ontziak: ur-baso erdiaren inguruko tamaina duten plastikozko ontziak, itxigailu hermetiko hariduna dutela. Ez da beharrezkoa esterila izatea. Bi tamainatakoak daude: txikia (kodea: 5148302) eta ertaina (kodea: 1016810)
- ▶ Litro erdiko eta aho zabaleko biopsia-ontzia (kodea: 5036871)
- ▶ 1 litroko eta aho zabaleko biopsia-ontzia (kodea: 5036870):
- ▶ 2,5 litroko eta aho zabaleko biopsia-ontzia (kodea: 5036869):
- ▶ Plastikozko eta aho zabaleko edukiontzia, 4 litroko edukiera duela (kodea: 5129051)

- ▶ Plastikozko eta aho zabaleko edukiontzia, 6 litroko edukiera duela (kodea: 5143728):

Aipatutako ontzi horiek Donostia ospitaleak banatzen ditu laginak hartzeko eremuetara. Lehen Arretako Zentroak eta Espezialitate Zentroak (Lartzabal, Gros, San Pedro) edo, beste edozein arrazoiengatik, horrelakorik ez badago, kontuan izan beharra dago laginak sartzen diren ontzi horiek baldintza batzuk bete behar dituztela:

- ✓ Lagin bat galdu dadila eragozteko eta horren manipulazioan arrisku biologikoari aurrea hartzeko, ontziek EZ dute beirazkoak izan behar, hautsi eta ebakiak eragin ditzaketelako.
- ✓ Ontziaren ahoak, lagin hori zailtasunik gabe bertatik atera eta sartu ahal izateko bezain zabala izan behar du.
- ✓ "Saiodi" motako ontziak, ahal dela, baztertu egin behar dira, beren hondotik lagin txikiak ateratzeko izan ohi diren zailtasunengatik.

2.2. Azterketa morfologikoa eskatzea. Bidalitako materialaren laburpen-orria:

Eskaera-orrian (2. eranskineko eredu orokorra) honako datu hauek agertu beharko dira, horiek egoki interpretatzeko beharrezkoak:

- ▶ Pazientearen filiazio osoa (izena eta/edo abizenak euskaraz agertu eta gaztelaniaz beste grafia bat dutenean- Adib.: "tx"-en kasuan, pazienteak eskuarki erabili ohi duena idatzi beharko da).
- ▶ Pazientearen adina eta sexua.

- ▶ Historia klinikoaren zk. (horrelakorik ez bada, gizarte-segurantzarena adieraziko da).
- ▶ Zerbitzua, medikua eta txostena zein zentrotara bidaliko den.
- ▶ Lagina zein organo edo toki anatomikotatik hartu den, baita horren lateralitatea ere.
- ▶ Paziante beraren ontzi bat baino gehiago bidaltzen direnean, horietako bakoitzaren barruan dagoen organo edo lagin-mota ordenaz adieraziko da.
- ▶ Susmo diagnostikoa.
- ▶ Biopsia egoki interpretatzeko beharrezkoak diren gutxieneko datu klinikoak.
- ▶ Baliagarritzat jotzen diren datu analitikoak eta irudi-probenak.
- ▶ Lagina duen ontzi horren barruan formola baldin badago, immunohistokimika hobeto interpretatzeko oso lagungarria da, ontzi horretan eta/edo eskaera-orrian, lagin hori finkagailuan zein ordu-tan sartu zen adieraztea.

2.3. Garraioa

¡Erne!

Ez erabili sekula hodi pneumatikoa biopsien laginak Anatomia Patologikoaren zerbitzura bidaltzeko.

Laguntzaileak, edo ebakuntza-gelak, edo biopsia egiten duen unitate bakoitzak berariaz izendatzen duen pertsonak egingo du. Edozein eratako ustekabekoak gerta ez daitezzen, horrek laginen identifikazioa galtzea edo nahastea ekar baitezake, zenbait

lagin erabiltzen baldin badira edo ontziak tamaina handikoak baldin badira, helburu horretarako dagoen garraio-orga erabili beharko da. Lehen Mailako Laguntza Zentroetan, oso baliagarria izan daiteke garraiorako bitarteko gisa hozkailu eramangarri bat erabiltzea.

2.4.Ordutegiak eta harrera Anatomia Patologikoan:

Lagin horiek hondatu daitezela eragozteko eta era guztietako arazoak ekidingo dituen identifikazio eta kodetze zorrotz bati ekiteko, ordutegi batzuk finkatu dira Anatomia Patologikoaren zerbitzuan horiek jaso ahal izateko:

- ▶ Larrialdietako Ebakuntza-gelak: orokorrak, ginekologikoak eta pediatriakoak:

Goizean jasotako laginak 13:45 eta 14:15 bitartean eramango dira Patologia zerbitzura.

Arratsaldean edo gauean jasotako laginak, 8:30 eta 9 bitartean eramango dira.

- ▶ Kirurgia programatua duten ebakuntza-gelak eta digestio edo arnasbide mailako endoskopia-gelak:

Lehenengo bidalketa-txanda: 12 eta 12:30 bitartean

Bigarren bidalketa-txanda, gerora lortutako laginetarako: 13:45 eta 14:15 bitartean

- ▶ Lehen Mailako Laguntza Zentroek laginak erauzi eta lehenbailehen bidali behar dituzte, eta honako harrera-ordutegi hauetara egokitu behar dute: 8:30etik 9etara, 12etatik 12:30era eta 13:45etik 14:15era

3. Ebakuntza-barneko biopsiak

Ebakuntza-gelatik bidaltzea.

- ▶ Anatomia Patologikoaren zerbitzuak 24 orduko aurrerapenez jasoko ditu ebakuntza-gelako partetak, eta jakinarazi egin beharko dira gerora egin daitezkeen aldakuntzak.
- ▶ Azterketarako laginak "fresko daudela" bidaliko dira, suero gazi fisiologikoz bustitako gasa batean bilduta. Edozein finkagailu erabiltzeak galarazi egiten du azterketa egitea
- ▶ Ebakuntza barruko eskaera-orria erabiliko da (kodea: HC 132)
- ▶ Arduradunak -erizain zirkulatzailleak- jakinaraziko dio Anatomia Patologikoari (zk.: 83-6005), ebakuntza-gelatik noiz irten den ere adieraziz.
- ▶ Ezinbesteko datuak eta eskaera-orrian agertu behar dute (a eta b puntuek ere erabilitako ontzian agertu behar dute):
 - a. Pazientearen filiazioa eta historiaren zenbakia.
 - b. Bidalitako materiala eta kokapen anatomiko zehatza
 - c. Ebakuntza-barneko biopsia egiteko arrazoia (adib.: kirurgia-ertzaren azterketa)
 - c. Datu klinikoak, analitikoak eta irudikoak, interpretazio morfologiko egokia egiteko beharrezkotzat jotzen direnak.
 - d. Diagnosi-susmoa.
 - e. Kirurgilari arduraduna eta dagokion zerbitzua.
 - f. Telefono zk. eta ebakuntza-gela, emaitza jakinarazi ahal izateko.

Aipatutako datu horietako batzuk EZ adierazteak ondorio larriak izan ditzake emaitza anatomopatologikoaren interpretazio edo jakinarazpen egokian.

Harrera Anatomia Patologikoan:

- ▶ Laginen harrera-eremuan diharduen APTEak:
 - Azken diagnostikoaren harrera- eta jakinarazpen-orduak erregistratuko ditu.
 - Azterketaren ardura daraman patologoa berehala ohartaraziko du, eta hark, eskaera-orrian, eskuz idatzita, laginaren deskribapen makroskopikoa eta kirurgilariari jakinarazten dizkion ohar eta diagnostikoak azalduko ditu.
- ▶ Patologoak, hasiera batean, eskaera-orrian adierazitako telefono eta kirurgilariari jakinaraziko dio emaitza. Garrantzitsua: inolako akatsik gerta ez dadin, ebakuntzarekin zerikusia duen pertsonal fakultatiboari BAKARRIK jakinaraziko zaio emaitza.
- ▶ 24 ordu baino lehen, ebakuntza-barneko emaitza-ren txosten idatzia bidaliko da.

4. Finkagailuak

Finkagailu unibertsala %10ean disolbatutako formula da, pH 7,4an indargeturik, eta hori merkataritza-etxeak (OPEC) eskainiko die, erabiltzeko prest, laginak hartzeko puntu desberdinei.

Badira arau horren zenbait salbuespen (ikus, horrez gain, 1.3 atala):

"Fresko dauden" biopsiak, finkagailurik gabe (suero gazi fisiologikoan bustitako gasa bat erabili)

- ✓ Ebakuntza-barneko biopsiak: ikus 3. atala.
- ✓ Lehen mailako patologiaren susmoa hartzen zaien gongoilak eta barea: azterketa zitogenetikoa, molekularra eta fluxuaren zitometria egin ahal izateko.
- ✓ Gaixotasun infekziosoaren susmoa hartzen zaien biopsiak: azterketa mikrobiologikora bidali ahal izateko.
- ✓ Giltzurrunaren patologia funtzionalaren biopsiak: bi zilindro hartu -edo kirurgia-ziria- eta berehala bidaltzen dira, immunofluoreszentzia eta azterketa ultraestrukturala egin ahal izateko.
- ✓ Azaleko gaixotasun baba-eragileen biopsiak: lesioaren inguruko bi punch hartuko dira. Bat formolean bidaliko da eta bestea fresko dagoela, immuno-fluoreszentzia bidez aztertzeke.
- ✓ "Alderdi bigunen" tumore gaizto baten susmoa (peritoneo-atzekoa eta mediastinoa ere barne: azterketa zitogenetikoa egin ahal izateko.
- ✓ Lehen mailako patologiaren susmoa hartzen zaien nerbioa eta muskulua: batean nahiz bestean, lagina tolestea edo moztea eragotzi behar da, eta beraz, muturrak kortxo baten gainean "ziztatuko dira".
- ✓ Jalkipen edo galera entzimatiakoagatik gaixotasunen susmoa hartzen zaien biopsiak, azterketa genetiko-biokimikoa egin ahal izateko.

Beste finkagailu batzuk

- ✓ Antzutasuna aztertzeko endometrioaren legratuak: 96°-ko alkoholean bidaltzen dira, glukogenoa gal ez dadin
- ✓ Antzutasuna aztertzeko testikuluen biopsiak: Anatomia Patologikoko zerbitzuarekin harremanetan jarriko da aurrez, Bouin finkagailua eskuratu diezaioten.
- ✓ Kristalak jaulkitzeagatik gaixotasunaren susmoa (hezueria, sasi-hezueria): 96°-ko alkoholean bidaltzen dira, formolaren ur horretan kristalak disolbatu daitezela eragozteko.

5.Ebakuntza-gelako parteak. Ehunen Batzordea

Dagokion aplikazio informatikoan erabilgarri dagoen ebakuntza-gelako parte bakarraren prestakuntza garapen-fasean aurkitzen da une honetan. Anatomia Patologikoaren zerbitzuak etorkizunean osatu ahal izango du parte hori, biopsia egin izan den kasuetan, Ehunen Batzordeak gerora erabili ahal izateko.

6. Biopsien kontrol eta erregistrorako orriak

Anatomia Patologikora bidalitako biopsien laginekin batera aipatutako zerbitzu horrek onarpen-orri bat (1. eranskina) gehituko du. Errefusatuz gero, Anatomia Patologikoaren zerbitzuan, horren arrazoia adieraziko da eta egun horretan bertan dagokion sailleko gainbegiratzailerari bidaliko zaio, zuzendua izan dadin.

Ebakuntza-barneko biopsietan, Patologia zerbitzua-
ren barruan, datu osagarriak jasoko dira, horren
adierazpena, behin betiko diagnostikoarekin duen
lotura eta erantzun-denbora balioesteko, horiek guz-
tiak nahitaezkoak baitira ISO 9000/2001 kalitate-
araudiaren barruan.

7. Azken txostena banatzea eta harrera-kon- trola

Azken txostena "Clinic" aplikazio informatikoan
lortu ahal izango da 24-48 ordutara, lehentasunez-
kotzat jotzen diren kasuetan (ikus 6. eranskina).
Gainerako lagin handietan edo ehun kaltzifikatuak
dituztenetan, edo azterketa bereziak behar dituzte-
netan, gutxi gorabeherako denbora 3 eta 6 egun
bitartekoa izango da.

Gainera, zerbitzu bakoitzarekin aldeztu aurretik
adostutako tokietara arrosa-koloreko paperean kopia
idatzi bakarra bidaliko da, historia klinikoan erraz
bereizi ahal izateko. Txosten hori bertan ageri den
medikuari bakarrik bidaliko zaio. Gertaera hori kon-
tuan izan beharko da, baldin eta pazienteak ingresa-
turik dagoen zerbitzua eta biopsia egiten duen zer-
bitzua desberdinak badira.

Patologoaren iritziz, biopsia horietan emaitza ana-
tomopatologikoa ustekabekoa edo tratamendua
lehenbailehen hastea eskatzen duena baldin bada,
eskaera egin duen zerbitzuko arduradunari zerrenda
bat bidaliko zaio, astean behin gutxienez, oharkabe-
an gera ez dadin.

8. Laginak suntsitzea

Patologia zerbitzuan erabili ez den gainerako materiala biltegian gordeko da amaierako txosten morfologikoa egin eta hilabeteko epearen barruan. Interes zientifikoa duten edo korrelazio klinikopatologikoko arazo larriak eragin ditzaketen kasuak ongi ikusten den etiketa baten bitartez bereiziko dira, "ez bota" adieraziz, eta epemugarik gabe mantenduko dira.

ERANSKINAK

I. Eranskina

Baztertutako espeziemenen egunerokoa (adibide laburtua)

Data	Filiazioa jasotzen duen etiketa	RB(*)	Jatorriko zerbitzua	Errefusarrazoia	Hartutako neurriak	Soluzioa: data eta sinadura

(*) arrisku biologikoa

II.Eranskina

Biopsia-azterketa eskatzeko orria

Osakidetza
Servicio vasco de salud

DONOSTIA OSPITALEA
HOSPITAL DONOSTIA

AZTERKETA ANATOMOPATOLOGIKOA EGITEKO ESKAERA
SOLICITUD DE ESTUDIO ANATOMOPATOLOGICO

B-

Adina / Edad **Sexua / Sexo**

Zirujaua / Cirujano

Zerbitzua / Servicio **Gela / Hab.**

Data / Fecha

Laburpen klinikoa / Resumen clínico

HK zk. / Nº H.C.

(Leku gehiago behar baduzu, erabili orriaren beste aldea
Si necesita más espacio, use el dorso)

Diagnostikoa / Diagnóstico

Bidalitako ehuna / Tejido enviado: **A)** **B)**

C) **D)** **E)**

Ekaita Jaureritako Erakunde Autonomotikoa
Organismo Autónomo del Sistema Vasco

Servicio vasco
de salud-Osakidetza

Arantzazu Amaren Ospitalea
Hospital Ntra. Sra. de Aránzazu

Solicitud de Estudio Anatómico-Patológico-Ginecológico B-

TD. 165

Edad _____ Hab. _____

Doctor _____

Ingresado ☐

Ambulatorio ☐

Fecha _____

N.º H. C. _____

FUR _____ F.M. _____ Partos _____

Motivo de consulta _____

Colposcopia _____

Tratamientos anteriores _____

Citología _____

Otros datos _____

(Si necesita más espacio use el dorso)

Tejido remitido A) _____

B) _____ C) _____



Osakidetza
Servicio vasco de salud

DONOSTIAKO OSPITALATEGIA
COMPLEJO HOSPITALARIO DONOSTIA
ARANTZAZU OSPITALEA
HOSPITAL ARANTZAZU

**OPERAZIO BARNEKO BIOPSIA
BIOPSIA INTRAOPERATORIA**

1. abizena / 1^{er} apellido

2. abizena / 2^{er} apellido

Hizapen zk. / N^o HC

Izena / Nombre

Jardeteguna / Fecha nacimiento

Zarbitzua / Servicio

Onesi/Kontsulta / Consulta

Operazio-gela / Quirófano:

Data / Fecha:

Ordua / Hora:

Diagnostikoa / Diagnóstico:

Zirujaua / Cirujano:

Lehendikako biopsia / Biopsia preba:

Bidalitako ehunak / Tejidos enviados:

Aurkikuntza kirurgikoak / Hallazgos quirúrgicos:

TXOSTENA / INFORME:

Patologoaren izena eta sinadura

Nombre y firma del patólogo:

Data / Fecha:

Ordua / Hora:

**OPERAZIO BARNEKO BIOPSIA TXOSTENA
INFORME BIOPSIA INTRAOPERATORIA**

132

OPERAZIO BARNEKO BIOPSIA / BIOPSIA INTRAOPERATORIA

